

# **Pentsioen eta lan-erreformarako gobernu espainiarrak eginiko proposamenen inguruko hausnarketak**

**ELAren balorazioa**

Azterketa Bulegoa

Bilbo, 2010ko otsailak 9

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

## Aurkibidea

<b>ELAren iritzia espainiako gobernuak pentsioen erreformarako egin duen agiriaz .....</b>	<b>3</b>
<b>Sarrera .....</b>	<b>3</b>
<b>I. Aurrekariak .....</b>	<b>3</b>
<b>II. Gobernuak egin nahi dituen murrizketak .....</b>	<b>4</b>
<b>III. Beste zenbait xehetasun .....</b>	<b>5</b>
<i>Pentsioen zenbatekoa .....</i>	<i>5</i>
<i>Pentsioen gastuaren bilakaera .....</i>	<i>6</i>
<i>Adituen iragarpen okerrak .....</i>	<i>7</i>
<i>Aberastasuna nola banatu .....</i>	<i>7</i>
<i>Autoezarritako mugak .....</i>	<i>8</i>
<b>IV. Ondorioak eta proposamenak .....</b>	<b>8</b>

<b>ELAren iritzia espainiako gobernuaren erreforma laboralerako proposamenaz .....</b>	<b>11</b>
<b>Sarrera .....</b>	<b>11</b>
<b>I. Aurrekariak .....</b>	<b>11</b>
<b>II. Gobernuaren proposamenen azterketa .....</b>	<b>12</b>
· <i>Epe jakinerako kontratuak .....</i>	<i>12</i>
· <i>Behin betiko kontratuak: kaleratzea erraztu eta merkatu .....</i>	<i>12</i>
· <i>Lanaldi partzialeko kontratuak .....</i>	<i>13</i>
· <i>Gazteen enplegua sustatzea .....</i>	<i>13</i>
· <i>Enplegu-agentzia pribatuak eta ABLEak .....</i>	<i>13</i>
· <i>Negoiazio kolektiboa eta enpresetako barne-malgutasuna .....</i>	<i>14</i>
· <i>Aldi baterako ezintasuna (IT) .....</i>	<i>14</i>
· <i>Lanaldia erregulatzeko espedienteak lanaldia murriztuta bultzatzea .....</i>	<i>14</i>
<b>III. Ondorioak .....</b>	<b>15</b>

## **ELAren iritzia espainiako gobernuak pentsioen erreformarako egin duen agiriaz**

### **Sarrera**

Espainiako gobernuak agiri bat onartu du; bertan biltzen dira pentsioen erreforma egiteko dituen asmoak. Bertan agertzen denez, Toledoko Ituneko batzorde parlamentarioak (Espainiako Kongresuan gizarte-segurantzaren gaia aztertzeke batzorde iraunkorra) aurtengo lehen hiruhilekoan (hots, martxo amaierako) landuko ditu pentsio-sisteman aldaketak egiteko konklusioak. Gobernuak dio batzordearen lana "ahal den eperik laburrenean bihurtu behar da lege-erreforma konkretu". Beraz, esan daiteke pentsio-sistemaren erreforma laster egingo dutela.

Agiri honetan ELAk bere iritzia jaso du Zapateroren gobernuaren proposamenari buruz. Eta iritzi hori emateko lehen oztopoa zehaztasun eza da, proposamen askotan. Gainera, pentsioen inguruko eztabaidan ez da argi hitz egiten, murrizketak eufemismoekin ezkututzen saiatzen baitira.

Nolanahi ere, argi dago gobernuaren agiriak atzerakada sozial larriak ekar ditzakeela. Esan liteke Zapaterok erakunderik neoliberalenak asetu nahi dituela (Nazioarteko Diru Funtsa edo Espainiako Bankua), patronalaren eta banketxeen interesen mesedetan eta langile-klasearen eskubideak eta kezkak baztertuta.

Eztabaida publikoan batez ere erretiratzeko adina 65 urtetik 67ra atzeratzeko puntua aipatu da. Noski, hau da proposamenik atzerakoienetakoa, baina ez bakarria, jarraian ikusiko denez. Izan ere, erretiroa hartzeko adinaz gainera beste hainbat alderditan eragin nahi dira aldaketak, ordaina jasotzen hasten direnek zenbateko gero eta txikiagoa kobra dezaten.

### **I. Aurrekariak**

Azken hamarkadatan pentsio-sisteman erreforma ugari egin da; guztien xedea, sistema publikoak eskaintzen duen babesaren murriztea. Adibidez, 2001ean eta 2007an ere aldaketak onartu ziren.

Gobernuak egin duen proposamena erreforma politika jakin baten ondorioz dator:

- **Etengabeko prozesua.** Pentsio-sistemaren erreformetan (lan-legerian edota zerga-politikan gertatu ohi den legez) erakundeen estrategia urte gutxiren tartearekin aldaketak ezartzea da. Erreforma bakoitza urrats bat izaten da gizarte-babesaren sistema desegin eta sektore publikoaren pisua gutxitze aldera; baina prozesuak ez dauka amairik.

- **Eskubideak murrizteko adostasun politikoa.** Adostasun politiko handia dago eskubide sozialak murrizteko proposamenak egiterakoan. Pentsioei dagokienez, Toledoko Ituna da honen adierazpidea. ELAk bere garaian esan zuen bezala (eta gauzak etorri diren moduan nabarmendu den gisan), Itunaren edukiak abiapuntu faltsu bat dauka: pentsioak murriztea beste irtenbiderik ez dago. Honi deitzen diote "pentsio-sistema sendotzea".
- **Espainiako elkarrizketa sozialaren adostasuna.** Espainiar elkarrizketa sozialeko partaideek pentsioen murrizketak bata bestearen atzetik onetsi dituzte. Partaide guztiak erreforma guztiak ez onartuagatik, patronalarekin eta sindikatuekin (CCOO edo/eta UGT) izandako akordioari esker adostasuna nabarmendu izan da, ez hainbeste erreformen benetako edukia. Elkarrizketa soziala baliatu egin da, beraz, benetan onartu diren erabakiak ekzutatzeke.

## II. Gobernuak egin nahi dituen murrizketak

Gobernuaren agiria ez da lege proposamen konkretu bat; hori dela eta, puntu askotan proposatzen diren erabakiak ez ditu zehazten. Halere, ordainsariak aipatzen diren ataletan aurrerantzean murrizteko borondatea nabarmena da. Aipagarriak dira honako hauek:

- Erretiratzeko legezko adina 65 urtetik 67ra eramatea. Agiriak ez du eperik aipatzen, baina prentsaurrekoan ekonomia ministroak esan zuen 2013tik aurrera erretiratzeko adina urtero 2 hilabetez atzeratuko zela.
- Jubilazio pentsioak beste era batera kalkulatu behar dira: kotizatutako urte gehiago oinarri arautzailea ebazteko (ez dago proposamen konkreturik, baina gobernuak Europako Batasunera bidali duen agiri batean dio gaurko 15 urteen orde 25 izan litezkeela). Zenbat eta urte gehiago aintzat hartu, are eta txikiagoa da lortzen den batezbesteko pentsioa. Aldaketak sartu nahi dira ere ezaldiari buruz (hots, ordainsari bat jaso ahal izateko kotizatutako denbora luzeagoa eskatzea), edota oinarri arautzaileari ezar dakioken portzentajea, kotizatutako urteen arabera (gaur %50 da, 15 urterekin eta %100 35ekin; hau aldatuta, pentsioa ere murriztu egingo litzateke).
- Erretiratzeko gutxieneko adina gehitzea (gaur 52 urtetan dago; ez da zehazten zenbat gehituko litzatekeen), eta alde zuzenetik erretiratzeko aukera eragozteko beste erabaki batzuk ezartzea.
- Alargunen pentsioa hainbat eratan murriztea (eskubidea jende gutxiagori aitortzea; zenbatekoa murriztea; jaso daitekeen epea txikitzea, etab.).
- Aldi baterako ezintasunaren ordaina murriztea. Bera jasotzeko aukerak mugatu egin nahi dituzte, batera ezineko diru-sarreraren kasuak gehitu, egoera horretan dagoen jende gutxiago egoteko kontrol zorrotzagoa, etab.

Gizarte Segurantzako sistema publikoaren pisua gutxitzearekin batera, gobernuak arlo pribatuaren garapena sustatu nahi du. Hots, eredu horretan esparru publikoak pribatuaren mesedetan galdu egiten du, eta sinestarazi nahi dute banaketako sistema publikoak bermatu ezin duena kapitalizazioko sistema pribatuak ziurtatuko duela. Hau guztiz faltsua da, eta finantza-erakundeen interes espekulatiboak asetzeari beste asmorik ez du. Horretarako agiriak proposatzen duena:

- Gizarte-aurreikuspen osagarria areago garatzea, hainbat bidetatik: Ordainsaria erretiratu gabe jasotzeko aukera ematea; lan-merkatuan ez dauden kolektiboentzako aringarri fiskal handiagoak (bereziki aipatzen dituzte etxeoandreak eta ezinduak), edota negozioazio kolektiboari lotutako pentsio-funtsen garapena bultzatzea.
- Berririo proposatzen da Erreserba-Funtsaren zati bat Burtsan inbertitzeko baimena ematea. Bere garaian Zapateroren gobernuak honelako proiektu bat onartu zuen, baina Parlamentuan ez zuen babes nahikorik lortu. Hau aurrera atera izan balitz Burtsaren gainbeherarekin batera gauzatuko zatekeen, eta Erreserba-Funtsak merkatu espekulatibo hortan jokaturako zati handi bat galduko zukeen.

### **III. Beste zenbait xehetasun**

Pentsioen inguruko eztabaidarekin zerikusia duten beste kontu batzuk aipatuko ditugu atal honetan.

#### ***Pentsioen zenbatekoa***

Pentsioei buruzko eztabaidan saihestu egiten da diru-sarrera hauek direla jende askoren bizibidea. Hots, jakin beharra dago pentsioek eta gainontzeko babesek bizimodu duina bermatzeko balio duten ala ez.

Hain zuzen, aipa daiteke Espainiako estatuan batezbesteko pentsioaren zenbatekoa -2010ko urtarrilean Lan eta Immigrazio Ministerioak emandako datuen arabera- hilean 772 da (958 EAEn eta 870 Nafarroan). Beraz, pentsioen ezaugarri nagusia da eskasegiak direla; asko gehitu beharko lirateke pentsiodunek pobrezia mailatik gora koka ahal daitezkeen.

### Hileko batezbesteko pentsioaren zenbatekoa. 2010eko urtarrila

Espainiar estatua	772
EAE	958
Nafarroa	870

#### ***Pentsioen gastuaren bilakaera***

Propaganda ofizialak -gobernu, komunikabide nagusi eta finantza-erakundeak- behin eta berriz diosku pentsioetako gastua azken urteotan zeharo gehitu dela. Haatik, datu errealak oso urrun daude propagandak dioen horretatik.

1995an, Toledoko Ituna sinatu zen urtean, Espainiako estatuan pentsiotarako gastua BPGaren %8,3 izan zen. Hots, ekonomian sortutako 100 eurotik 8,3 6,96 milioi pentsiodunengana bideratu ziren.

Gastuak gainezka egin duela egia balitz, pentsioetako gastuak aberastasunetik hartzen duen zatia guztiz puztuta legoke. Baina gezurra badirudi ere, erabat kontrakoa gertatu da: 2008an (datu orokorrak jaso diren azken urtea) pentsioetan estatuan BPGaren %7,8 gastatu zen (13 urte lehenago baino 0,5 puntu gutxiago). Gainera, hau gertatu den bitartean pentsiodunen kopurua hazi egin da 1,5 milioi, hots, 8,39 milioiraino).

Beraz, egia da pentsioetako gastua eurotan gehitu egin dela, baina gizarteak errenta osotik ez du orain dela 13 urte baino zati handiagorik bideratzen. Ez da egia, horrenbestez, azken urteotan pentsioetako gastua gehiegi puztu denik.

#### **Kotizaziopeko pentsioetako gastua (BPGaren %). 1995-2008**

	1995	2000	2005	2008
Espainiar estatua	8,3	7,9	7,5	7,8
HEH	8	8	8	8,4
EAE	8,5	8,4	8,5	8,8
Nafarroa	6,1	6,4	6,5	6,8

*Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Gizarte-Segurantzak, INE, Eustat eta IENen datuen arabera.*

### ***Adituen iragarpen okerrak***

Adituak aipatzen direnean kontutan izan behar da duela zenbait urte (adibidez 1995an) eurek iragarri zutela sistemaren porrota 2010rako, eta BPGarekiko pentsioetako gastuak gainezka egingo zuela.

Espainiako Gobernuaren 1995ko agirietan "aurreikuspen" batzuk zeuden; hauen arabera 2010ko pentsioetako gastua BPGaren %10 inguru izango zen. Aurreko koadroa ikusirik, argi dago iragarritakoak errealitatearekin zerikusirik ez dutela. Gogoratu beharra dago ere gizarte-segurantza sistemak 2009 urtea superabitarekin itxi zuela, gainerako erakunde eta organismo publikoek ez bezala.

Esan beharrik ez dago finantza-erakundeek edota hedabideek "aditu" izendatzen dituzten horiek aurreikuspen are puztuagoak egiten zituztela gastuari buruz, eta beraz hankasartzea handiagoa zela. Pertsona hauek ez baitabilta alferrik finantza-mundutik eta patronaletik urrun.

2010an sistema kiebra jotzekotan egongo zela iragarri zuten erakunde edo aditu horietako batek ere ez du hutsegiterik aitortu. Inork ez du bere kargua utzi. Aitzitik, orain berriro ekin diote erasoari: 2025an edo 2040an sistema finantzatu ezinik egongo omen da, eta ondorioz pentsioak murriztu egin behar omen dira.

Begibistakoa da hau ez dela hipotesi okerren kontua. Pentsio-sistemarekin demagogia egiteko interesa nabarmena da, herritarrei sinestarazteko bide bakarra dagoela: pentsio publikoak murriztu eta pentsio pribatuen negozioa sustatzea.

### ***Aberastasuna nola banatu***

Pentsioez hitz egitean funtsezko beste gai bat alboratu nahi izaten da, aberastasunaren banaketa, alegia. Esan dugun bezala, aurreneko paradoxa hau da, gero eta herritar gehiagok errentaren zati bera edo txikiagoa bereganatzen dutela. Hauxe gertatu da 1995tik hona. Beraz, pentsiodunek aberastasunaren hazkundearekin ez dute onurarik izan; aldiz, propaganda ofizialak dio gobernua oso eskuzabala dela pentsioak jasotzeko eskubidea duten herritarrekin.

Adituen etorkizuneko hipotesiak ontzat emanez gero ere (hauek zalantzan jar daitezkeen arren), onartu ezineko zerbait irenstea nahi dute: Gaur aberastasunaren %7,8arekin populazioaren %16aren pentsioak ordaintzen dira. Eta ez dute nahi pentsioetara bideratzen den aberastasunaren zatia hazterik, etorkizunean populazioaren %30ak eskubidea izango duelarik (pentsiodunen kopurua hazi egingo baita, eta gainontzekoak gutxitu).

Ez gobernuek, ez patronal edo banketxeek, inork ez du azaltzen aberastasunaren beste puska nork poltsikoratuko duen. Aurreikusten dutena ontzat emanez gero (bai demografiari, bai gaurko arauen arabera pentsioen gastuari buruz), arrazoizko ondorioa beste bat

litzateke: pentsiodun populazioarekin batera pentsioetako gastua ere haztea logikoa da, eta hau ez da inongo arazoa, pentsiodunak duin bizitzea nahi izatekotan bederen.

Aberastasuna badago, eta bihar ere izango da; behar dena banaketa justua egitea da. Pentsioak murriztu nahi dituztenek helburu bat dute, enpresen eta kapitalaren errentek banaketa orokorrean gero eta zati handiagoa bereganatzea.

### ***Autoezarritako mugak***

Azken urteotan hainbat erabaki politikorekin baldintzatu egin nahi izan dute irtenbide bakarra gera zedin, pentsioak murriztea. Erabakiok honakoak izan dira:

- Kotizazio sozialen murrizketa.
- Kotizazioak gehitzeko aukera ukatzea.
- Pentsioak finantzatzeko bide bakarra kotizazioak direla esatea (gizarte-segurantzaren superabita betidanik erabili izan dute, eta gaur ere hortan jarraitzen dute, hein handian pentsioak ez diren beste gastu batzuk ordaintzeko; baina pentsioak finantzatzeko zergak erabiltzea ukatu egiten dute).

Hauek guztiak erabaki politikoak dira. Pentsio-sistemaren oinarria diru-sarrerak eta gastuak dira; gastua gehituz gero, diru-sarrerak ere handitu behar dira. Ez da onargarria egungo hautu politikoa: gastu publiko guztiak (errepideak, abiadura handiko trenak, justizia edo polizia) zerga bidez finantzatu behar direla esaten dute, baina pentsiodun, ezindu edo langabatuaren ordainsariak murriztu beharra omen dago. ELA pentsamolde honen aurka dago.

## **IV. Ondorioak eta proposamenak**

Espainiako gobernuak gizarte-segurantzako sistema erreformatzeko iragarri dituen neurrien aurka dago ELA, arrazoi hauengatik:

- Onartezina da, sistemaren babesak zeharo murrizten baitu- Pentsioen zenbatekoa eskasa da, eta sarri ez da pobrezia mailatik ateratzeko nahikoa.
- Pentsioetako gastua ez da hazi azken urteotan- Aberastasun osotik kotizaziopeko pentsioetara bideratzen den gastua ez da 1995an baino handiagoa; pentsioetako gastuak gainezka egitekotan daudela gezurra da.
- 2025 edo 2040 urteetarako aurreikuspenak ez dira sinesgarriak- Aurreikuspen hauek egiten dituzten erakunde eta aditu berberak 1995an esan zuten 2010rako sistemak porrot egingo zuela. Antzeko ezer ez da gertatu, eta ez da arrazoizkoa pentsatzea orduan hanka sartu zutenek orain asmatuko dutenik.



- Herritarrei hainbat eratan egiten diete kalte- Jendea beranduago erretiratzen behartuta, adinekoren osasuna okertzen da, eta gazteek langabezian denbora luzeagoz egon behar dute.
- Sistema publikoaren egitekoa gutxitzen da eta pentsio-sistema pribatuak sustatzen dituzte- Honela babes unibertsala ahultzen da eta berme jakinik gabeko sistema pribatua bultzatzen da, besteak beste berau izan den arren krisiaren jatorri.

Pentsioen eztabaidaren inguruan ELAk hau aldarrikatzen du:

- Espainiar gobernuak bere agiria erretiratzea, eta pentsioak murrizteko proposamenik ez dezala egin.
- Gizarte-segurantzako sistemak ematen dituen ordainak duintzea- Pentsioen eta beste babes sozialen zenbatekoak bizimodu duin bat egin ahal izateko nahikoa izan behar du. Hain zuzen, egungo pentsio asko gehitu egin behar dira; azken urteetako murrizketek bertan behera geratu behar dute; pentsioek KPIz gaindi hazi behar dute, pentsiodunek ere aberastasunaren hazkundera parte har dezaten.
- Sistema bideragarria izan dadin bermatzeko modurik onena soldatek erosteko ahalmena irabaztea da- Soldata eskasek kotizazio maila apala dakarte, eta soldatak hobetuz gero, kotizazio sozialak KPIz gaindi gehituko dira.
- Gizarte-segurantzako sistemaren finantzatzeko bide bakarra ezin dute kotizazio sozialek izan. Ez dago inongo mugarik gizarte-segurantzako gastua zerga bidez finantzatzeko, beste gastu publiko batzurekin gertatzen den legez (hauek gizarterako interes askoz txikiagoa duten arren).
- Gizarte-segurantzari buruzko erabakiak euskal esparruan hartu behar dira- Hego Euskal Herriko langileen eskubide sozial eta laboralak murriztu egiten dituzte espainiar Estatuan hartutako erabakiak medio. Gure aukera nazionala eta aldeztu dugun gizarte-segurantza eredu aintzat hartuta, gai hauen inguruko erabakiak Euskal Herrian hartu behar dira.



## **ELAren iritzia espainiako gobernuaren erreforma laboralerako proposamenaz**

### **Sarrera**

Espainiako gobernuak joan den ostiralean, otsailak 5, agiri bat aurkeztu zuen (“Gizarte-eragileekin elkarrizketa sozialaren esparruan eztabaidatzeko lan merkatuko jardunbideak”), beste erreforma laboral bat egiteko asmoz. Egia da proposamena ez dela guztiz zehatza, baina hainbat puntu konkretuak dira eta, nolana ere, lan-eskubideak okertzeko joera nabarmena da nagusi. Halaxe azaldu du CEOEko presidentek: beronen ustez “neurri guztiak norabide onean doaz”; hau, noski, kezkatzekoa da langile-klasearentzat.

ELAk aurreko astean plazaratu zuen bere iritzia pentsioen erreformaren inguruan gobernuak luzatu zuen proposamenaz. Gure sindikatuaren ustez exekutibo berak lan-legeria erreformatzeko aurkeztu duen agiria ere bide beretik doa; xedea betiere eskubideak murriztea da, ondoren ikusiko dugunez.

### **I. Aurrekariak**

Gobernuak bere agirian behin eta berriz aitortzen du gaur arteko ereduaren porrota. Zer ekarri du eredu horrek? Malgutasuna, kontratuetan iruzurrak eragin duen aldi baterako enplegu tasa izugarria, arrazoi jakinik gabeko kaleratzeak, etab.

Eredu hau hainbat erreforma laboralen ondorio da; hauek beti argudio berdinekin zuritu dituzte, hots, enplegua sortzeko eta aldi baterako kontratuak gutxitzeko zirela esanez. Halere, diagnostikoa egin ostean onartzen ziren aldaketek ez zeukaten zerikusirik helburu teorikoekin; aitzitik, lana gero eta prekarioagoa bilakatu dute.

Politika hauen ondorioz estatuko lan merkatuko langabezia maila itzela da, Europako Batasuneko kolokako enplegu tasarik handiena du eta enplegu askok eta askok soldata oso pobreak dituzte.

Oraingoan gauza bera gertatzen da: agian diagnostiko zuzena egiten da eta zentzuzko helburuak ezartzen dituzte, baina hartu nahi dituzten neurriek edo jardunbideetarako proposamenek ez dute zerikusirik helburu horiekin, lehenago egindako aldaketen antzekoak baitira (mesederik handiena patronalari egiten diote; produktibitatea eta barne-malgutasuna handitzeko logika da nagusi).

Pentsioetan gertatzen den bezalaxe, erreforma laboralaren aurrekariak hiru ezaugarri dituzte:

- **Etengabeko erreforma.** Lan-legeriaren erreformak sarri tartekatzen dira, eta beti lan-eskubideak murrizte aldera.

- **Adostasun politiko zabala.** Alderdi politikoen artean adostasuna nagusi da politika hauen inguruan. Ez da alderik izan PPreu edo PSOEn gobernuen artean.
- **Elkarrizketa sozialaren adostasuna.** Elkarrizketa sozialak erreforma hauek onetsi ditu, eta estatuko sindikatuekin hitzartzea gauza ona dela sinestarazi nahi dute.

ELAk nabarmendu nahi du gobernuaren agiriak norabide bera daramala; izan ere, patronalaren mesedetako neurriekin batera esaten dute, beroiek saltzeko asmoz, euren proposamenak “elkarrizketa sozialaren baitan negoziatzeko” direla; baina, zalantzarik balego, betiere “gobernuak duela gutxi onartu duen aurrekontu-zuhurtziaren arabera”. Hots, gobernuak gizarte-elkarrizketaren babesa jaso nahi du aurrerantzean ere (“guztion ardura” da, ezinbestekoa eta premiazkoa, lan-merkatu moderno, funtzional eta koherente bat lortzea), enpresaburuaren egoera hobetzen jarraitzeko.

## **II. Gobernuaren proposamenen azterketa**

Gobernuaren proposamenak hauek dira, besteak beste:

- ***Epe jakinerako kontratuak***

Puntu honetaz hau esaten da: “berriro hausnartu behar da epe jakinerako kontratu mota desberdinen zergatien definizioaz”. Honek legeriaren erreforma eskatuko luke: Kontratu tipo bakoitzerako zergati konkretuak ezartzea (horrela saihestuko lirateke azpikontratazioa, kontratuen segida eta enpresa berberetako lanpostuetan langileen txandakatzea).

Aipatzen diren bideak: kontratu amaierako kalteordainak aldatzea (gaur indarrean dauden urteko 8 egunetik gora, beraz), baita langabeziarako kotizazio-tipoak ere (aldi baterako kontratuetarako kotizazio hau gehitzea litzateke).

Gai honekiko arazorik handiena aldi baterako kontratu askotan gertatzen den iruzurra dugu. Iruzur honi aurre ez egitekotan, aldi baterako enplegua gutxitzea oso zaila izango da.

- ***Behin betiko kontratuak: kaleratzea erraztu eta merkatu***

Gobernuak kontratu mota honen aldeko apustua egiten du, enpresarentzat zein beharginentzat errentagarriago eta egokiagoa irizten baitio. Haatik, mahai gainean jarri dituen aldaketekin gobernuak kaleratzea errazagoa eta merkeagoa izatea nahi du, ez hainbeste kontratu finkoak hedatzea, izan ere, hau proposatzen baitu:

1. Egun indarrean den “kontratazio mugagabea sustatzeko kontratua” bultzatzea, hots, bidegabeko kaleratze kasuan lan egindako urteko 33 egun adinako kalteordaina duena, kontratu finko ohikoaren 45 egunen aldean.

2. Kaleratzea arautzen duten Langileen Estatutuko artikuluetan aldaketak egitea (bidezkoa zer den eta zer ez; zergatiak; diziplinazko kaleratzeak eta zergati ekonomikoek behartutako kaleratzeak)- Testua ez da oso zehatza, baina aditzera ematen du praxian kaleratzeak merkeago eta errazagoa izan beharko duela.

- ***Lanaldi partzialeko kontratuak***

Lanaldi partzialeko kontratuak hedatzea lan-merkatuaren egungo egoera gainditzeko oso lagungarria izango omen litzateke. Horretarako aldi baterako bi kontratu mota ezartzea proposatzen du: batek lan- eta famili-bizitza bateratzea erraztuko luke, lan-ordutegi finko eta egonkor batekin, eta besteak egun baino malgutasun handiagoa emango luke lanaldia antolatzerakoan, enpresak moldagarriago izan daitezen.

Argi dago honela enpresei malgutasun handiagoa eman nahi dietela, lanaldi partzialeko kontratuaren izaera aldatuta; dagoeneko kontratu mota prekarioa da, enpresaburuen gehiegikerietarako aukera eman ohi duena.

- ***Gazteen enplegua sustatzea***

Kolektibo honek pairatzen ditue langabezia-tasarik handienak; horregatik enplegua lortzeko aukerak, merkatuan sartzeko eta promozio profesionalerako aukerak hobetu behar zaizkie. Horretarako politika aktiboak erabili ohi dira, batik bat trebakuntza. Horrenbestez, estatu guztian antzeko prestakuntza eman nahi da (INEMen eta autonomia-erkidegoetako enplegu zerbitzu publikoen artean finantzatutakoa), batez ere ikasketarik gabeko 16 eta 24 urte arteko gazteei zuzendua, euren ingurura molda daitezen.

Bestalde, prestakuntzarako kontratuak sarriago erabiltzea eragin nahi da (hitzarmenekoak baino soldata txikiagoak dira). Arauetan aldakuntzarik eginez gero, kontratu era hau duten langileen lan-baldintzak okertu egingo liriateke. Gainera, prestakuntza egiten ez dela ikusirik, 50 lagunetik beherako plantilla duten enpresei honek dakartzan kostu eta eskolak ematea kendu nahi zaie.

- ***Enplegu-agentzia pribatuak eta ABLEak***

Gobernuak proposatzen duena: “enplegu-agentzia pribatuei sarrera eman behar zaie lan merkatuko bitartekaritzan”. Halaber, testuak adierazten du ere ABLEak erabiltzeko lege-oztopoak murriztu edo kendu nahi dituztela (CCOO-k, UGT-k eta enpresa hauetako enpresarien elkarteak sinatu zuten akordioaren bidea jarraituz).

Horrela, ildo honi jarraiki enplegu-zerbitzu publikoen pisua gero eta txikiagoa da, eta lan-merkatuko bitartekaritzarekin negozioa egiten duen gero eta erakunde pribatu gehiago dago.

Bestetik, zerbitzu-enpresetan gertatzen diren abusuak aipatzen dira, baina proposamenak ez du argitzen hori aurre egiteko urratsik emango ote duten.

- ***Negoiazio kolektiboa eta enpresetako barne-malgutasuna***

Negoiazio kolektiboaren egiturari buruz agiriak dio “negoiazioaren atomizazioa” arazo bat dela, eta hau patronalak eta sindikatuak hitzartu beharrekoa dela, eurek agindu baitzuten “aldebiko azterketa egitea negoiazio kolektiboaren egitura garatzeko formularik egokienak erabakitzeko”.

Bestalde, gobernuak beharrezko ikusten du enpresetan barne-malgutasun handiagoa lortzea, hauek “moldagarriago, mugikorrago eta produktiboago bilakatzeko”.

Gobernuak uste du gai hauei buruzko akordioa aztertu egingo dela “2010 eta ondorengo urteetarako Hitzarmen Kolektiboen inguruko sinatzeko egiten ari diren negoiazioetan”. Hartara, pentsa liteke negoiazio kolektiboa zentralizatzeko politikak jorratuko direla, baita esparru honetan zein lan-malgutasunean ere.

Bestalde, trebakuntzaren aldeko apustua egiten da, publiko zein pribatu dela ere, eta negoiazio kolektiboko puntu nagusi izatea.

- ***Aldi baterako ezintasuna (IT)***

Proposatutako neurrien xedea oraingo honetan ere IT prozesuen kontrola lortzea da. Betidanik esan izan da prozesuok behar baino gehiago luzatzen direla, eta baja epealdietarako luzera neurri “estandarrik” finkatu beharra dagoela. Honetarako gaixotasunik ohikoen eta errepikatuenak aztertu beharra dago. Mutualitateek eta INSSek prozesua “arintzea” posible litzateke, helarazi izan digun informazio eta paperak plazaratuz.

Bajen iraupenari buruz, guztiak kontrolatuko dira, baita 30 egunekoak eta hortik beherakoak ere.

Prozesu honetan egoki irizten zaio enpresek hitzarmenak lortzea, lan-baldintza eta lanpostuen kontrola ezartze aldera, laneko absentismo-tasa murrizteko asmoz. Enpresei sari ekonomiko bat eman nahi zaie, IT prozesuan lortu den aurrezkiaren portzentajearekin.

Beraz, argi dago ez dagoela aurrerapiderik osasunean; aitzitik, gero eta kontrol handiagoa, presio latzagoa eta aurrezki handiagoa.

- ***Lanaldia erregulatzeko espedienteak lanaldia murriztuta bultzatzea***

Lotuta dauden bi gauza bailiran aipatu ohi dira lanaldia murriztea eta enpresek egoera ekonomiko zailtan moldatzeko duten beharra. Horrela enplegua aldi baterako gutxituko litzateke, lanposturik kendu gabe.

Horretarako ematen diren errezetak:

1. Langabezi ordaina jasotzeko aukera ematen duen lanaldi murriztuaren leihoa zabaltzea.
2. Murrizketa horri muga jartzea.
3. Prozesua arintzea; arinagoa izan dadila enplegua eteteko EREetan, akordioa denean.
4. Enpresa orok erabil dezakeen tresna bihurtzea, edozein dela ere beren tamaina.
5. Enpresak epealdi horretan prestakuntzaren bat ematen badu, enpresa-kotizazioak duen hobaria gehitzea.
6. Eragindako langilearen gizarte-babesa sustatzea, betiere prestakuntzan parte hartu duela egiaztatu badu; erabilitako langabezia-ordainak berriz osatzeko epealdia luzatuz.

### **III. Ondorioak**

- ELAk arbuia egiten ditu gobernuak lan-erreformarako egin dituen proposamenak, kaleratzea erraztu eta merkatzen baitute; malgutasuna eta kolokako enplegua hainbat modutan areagotzen dute; enpleguaren bitartekaritzan esku pribatuari aukera handiagoak ematen dizkio (hots, ABLE eta enplegu-agentzia pribatuei); ITa okertzen du, eta HEHan indarrean den negoziazio kolektiboaren egiturarentzat arriskutsua da.
- Proposamen honekin beste urrats bat egin nahi dute azken erreforma laboralen ildotik; hauek taxutu duten lan-merkatuan langabezia, prekarietatea eta soldata apalak dira nagusi.
- Gobernuak krisia baliatu egin nahi du indar-erlazioa langile-klasearen kaltetan aldatzeko. Zapateroren gobernuak dituen asmoak gauzatuz gero, patronala indartsuagoa litzateke. Horrela eman nahi diote irteera betikook ordaintzen ari garen krisi honi.
- ELAk kalera aterako du gobernuaren planen aurkako salaketa: lan- eta gizarte-eskubide murrizagoak, lan-legeriaren edota pentsioen erreforma medio.

## Oharrak

A series of horizontal dotted lines for writing.